

Konektatu zure Ordenadorea Etorkizunari



Josu Waliño*

USB estandarraren izateko arrazoi nagusia ordenadorea eta bere periferiko guztien arteko komunikazioa erraztu eta azkartzea da. Hala ere, bere onurak goraipatzerakoan, hiru puntu nabarmendu ohi dira beti: datu-transmisiorako abiadura nabarmenki azkartzea, konexiorako erraztasun berriak ematea, eta benetako Plug and Play-a eskaintzea. Estandarra berehala ezarriko zaigu, prest egon beharko dugu beraz.

Estandar berri bat dator konexioen mundua az-tintzera: USB edo Universal Serial Bus bezala ezagutzen dena, periferikoen industriak egindako saiakera garrantzitsu baten ondorioa da. Honen bidez ordenadorera konektatu ohi ditugun periferikoak, sagu edo teklatu arruntetatik hasi eta eskaner, kamera digital eta antzekoak arte, kable-mota bakar baten bidez konektatu ahal izango ditugu, orain arteko kableatu eta ataka-multzo ikaragarria nabarmenki murriztuz. Etorkizunean, SCSI, paralelo-ataka, serie-ataka eta antzerako guztiak USB atakara murriztuta geldituko dira. Estandar berri honen bidez 127 periferiko arte konektatu ahal izango ditugu gure ordenadorera inongo arazorik gabe

eta abiadura era nabarmenean hobetuz gainera.

Plug and Play behingoz!

Windows 95aren jaiotzarekin batera saldu nahi izan ziguten Plug and Play famatua, berriro entzun genuen Windows 98aren aurkezpenean Bill Gates-i ordenadorea "trabatuta" geratu zitzaionean eskaner bat konektatu nahian zebilarik. USB berriarekin ordea, benetako Plug and Play-a izango dugu behingoz. Orain arte, gure ordenadoreari periferiko berri bat konektatu nahi genion bakoitzean, lehendabizi hau itzali, periferikoa konektatu eta ordenadorea berriro piztu behar izaten genuen honek periferikoa onar zezan. USBaren bidez, ordea, ordenadorea piztuta dagoela edozein periferiko konektatu ahal izango



USB atakak

diogu sistema eragileak automatikoki detektatu eta zuzenean onartuko duelarik bere erabilera. Gainera, ez dizkiogu PCI txartel berriak sartu beharko gure ordenadoreari periferiko bat erosten dugun bakoitzean, honek USB estandarra onartzen badu behintzat.


Datu-transmisio azkarragoa

Komunikazio abiadura ere nabarmen handituko da. Periferikotik ordenadorera joango den seinalea lau hariz osaturiko kable baten bidez joango da. Hari haue-tako batek elektrizitatea garraia-





◆ USB



tuko du, eta beste batek lurrera-ko toma, beraz periferikoek ez dute argi-indarrerako kable propiorik behar; honek bi gauza suposatuko dizkigu: batetik, ez ditugula lehen bezainbeste entxufe eta lapur behar guretzat erosoago izanik, eta bestetik, eta hemen dator benetako berrikuntza, USBk zuzenean ezagutuko du periferiko bakoitzak behar duen potentzia, eta horren arabera emango dio behar duena.

USB kablearen barruan beste bi hari geratuko zaizkigu datu-transmisorako erabiliko dituenak. Transmisio hau 1,5 eta 12 Mbit/s bitarteko abiadura eragingo da periferiko-motaren arabera. Gaur egungo serie-ataka baten transmisio abiadura, 100 kbit/s-koa da, beraz USBk abiadura hau 15 aldiz handitzen du kasurik txarrean. Hala ere, kanpoko disko gogorren kasuan bezala, abiadurak benetako garrantzia duenean, FireWire edo UltraWide SCSI egokia gozatu behar da USB baino.

127 periferiko batera

Orain arte USBaren onura teknikoek buruz aritu gara. Bestelako onurak ere baditu, ordea. Sistema honek gure ordenadorera 127 periferiko batera konektatzeko aukera ematen digu. Printzipioz, ordenadoreak bi USB ataka izango ditu, baina SCSI konektoreak bezala, periferiko bat besteari seriean konektatzeko aukera ematen duenez, zuzenean konektatu ditzakegun periferiko-kopurua handiagoa da. Hala ere, argi-indarra ere kable beretik eraman du, eta abiadura kontuak direla medio, hau ez da oso aukera egokia. USBk arazo hau era egokian konpontzen du, HUB moduko aparatu bat eskainiz. Honen bidez, 127 periferiko arte konektatu ahal izango dizkiogu gure ordenadoreari aldi berean.

Noiz eta nola?

USB estandarra berehalakoa bada ere, merkatua irabazteko dauka oraindik. Hasteko, estan-

dar hau onartzen duen sistema eragile bakarra Windows 98a da PCan (eta Windows 95en azken bertsioa), eta Mac OS 8.5a Macintosh-erako. Bestalde, azken ordenadoreek USB konektoreak berez ekartzen badituzte ere (Macintosh-en kasuan iMac berriak duen konektore bakarra da), periferiko-fabrikatzaile guztiak ez dira hasi oraindik bere produktuei horrelako konektore gehitzen. Gainera sortu daitekeen beste kezka bat etxean lehendik ditugun periferikoak nola konektatu izan daiteke. Horretan ere pentsatu dute eta dagonekoz badaude egokigailuak merkatuan. Hala ere, guztiok dakigu informatikaren munduak (edo informatikaren merkatuak) darman abiadura nolakoa den, eta laster batean egokitu behar dugu gure ekipoa horrelako berrikuntzetara.



* Informatikan lizentziatua

